

Libe eta Ainhoa, Euskadiko txapeldunak mailu-jaurtiketan

Oraindik 15 urte bete ez dituzten arren, Libe Solozabal eta Ainhoa Izagirre ermuarrak Euskadiko txapeldun eta txapeldunorde dira hurrenez hurren oso ezaguna ez den atletismoaren diziplina batean: mailu-jaurtiketan. Lolo Garcíak entrenatzen dituen neskok gogotsu eta indartsu daude.

Otsailaren 25ean Euskadiko Jaurtiketa Luzeen txapelketa burutu zen Bilbon. Anaitasuna Ikastolako ikasle diren Libek eta Ainhoak 3 kiloko mailuarekin egin zuten saioa eta euren kategorian garaile izan ziren. Libek 24,81 metroko jaurtiketa egin zuen eta Ainhoak, berriz, 23,51 metrokoa. *“Egia esan kadete mailan parte hartu genuen bakarrak izan ginen, baina garaipena oso pozgarria izan zen, gure marka pertsonalak hautsi genituelako”.*

Ordutik hona, hala ere, euren markak berriro ere gain-

ditu dituzte eta orain Ainhoak (27 metro), aurea hartu dio Liberi (24,82 metro). Oraindik asko dute ikasteko baina gustura egiten dutenez, aurrerapausoak ikaragarriak direla dio entrenatzaileak.

Kirolari hauek azaldu digutenez, heldulekua duen pisu borobila da mailua. Jaurtiketa egiteko, atletak mailua bi eskuekin hartu behar du eta babes-kaiolaren barruan kokatuta, hiruzpalau bira oso egin behar ditu bere gorpuzaren inguruan, indarra eta abiadura egokia hartzen duenean jaurtigaia botatzeko. Teknika berezia eskatzen



duen kirola da eta ermuarrak lehengo eta bigarren bueltak ematen ikasten dabilta oraindik ere. *“Jendeak pentsatu dezakeenaren kontra, kirol honetan indarra ez da garrantzitsuena: bueltak emateko trebezia, koordinazioa eta teknika dira gakoa”*, diote.

Kirolari amorratuak

Mailu-jaurtiketa infantil kategoriara heldu arte ez da lantzen eta hori izan daiteke kirol hau jende gutxi praktikatzearen arrazoietakoa bat, euren iritziz. Baina euren gustukoa dute eta jarraitzeko asmoa dute, nahiz eta entrenatzeko dituzten baldintzak

nahikoak ez diren. *“Betiondon daukagun mailua plastikozkoa da, pisu txikia du eta ez dugu kaiolarik, horregatik, Durangoko Landako kiroldegira joaten gara ia astero”.*

Bizitza erdia daramate kirola praktikatzeko, (LHko 3. mailatik aurrera Libek eta 4. mailatik Ainhoak) eta mailu-jaurtiketari ekin aurretik, beste kirol batzuetan aritu dira, hala nola krozean eta martxan. Kilometro bat eta 3 kilometro arteko ibilbideak egin dituzte azken kirol horretan eta 2010ean Ainhoak urrezko domina lortu zuen Bizkaiko eskolen arteko txapelketan.

Dorleta Vidal

Zer dio Lolo García entrenatzaileak?

“Fisikoki sasoian daude eta, oso altuak ez diren arren, indartsuak dira eta bizitasuna dute. Hazterakoan, euren ahalmenetara egokitzen den diziplina bilatu nahi izan diet bi helbururekin: besteengan nabarmentzeko eta, batez ere, motibatzeko. Egia esan, harrituta utzi nau zein gogotsu hartu duten biek mailua. Aurretik, Libe krozean oso ondo moldatzen zen eta Ainhoa jaurtiketetan nahiko ondo ibili izan da eta mailuak poztasun handia emango diola esango nuke, asko hobetu delako oso denbora gutxian”.

TXALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

**Erdikokale 13
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK
943 030 299**

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

**Goienkale 9 · ERMUA
943170065**